



ERRENTERIA
UDALA



ERRENTERIAKO HERRITARREN IRITZIAK UDALAREN ETA BERE PROIEKTUEN INGURUAN, 2026

IKERKETA KUANTITATIBOA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. METODOLOGIA OHARRAK	3
3. EMAITZAK.....	4
3.1. ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK.....	4
3.2. ERRENTERIAREKIKO ASEBETETZEA ETA UDALERRIKO ARAZO NAGUSIAK	7
3.2.1. ERRENTERIAKO ASEBETETZE MAILA, BIZITZEKO UDALERRI MODUAN	8
3.2.2. GEHIEN BALORATZEN DEN ERRENTERIAREN ASPEKTUA.....	9
3.2.3. ERRENTERIAKO ARAZO NAGUSIA ZEIN DEN	10
3.3. UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA	11
3.3.1. UDAL GOBERNUAREN ETA OPOSIZIOAREN INGURUKO IRITZIAK	14
3.3.2. UDAL GOBERNUA HAINBAT GAJETAN NOLAKO KUDEAKETA EGITEN ARI DEN.....	15
3.3.3. UDALAK BERAUNEN IREKI DUEN ZU! ZERBITZUAREN EZAGUTZA MAILA	16
3.3.4. UDAL GOBERNUAREN EZAUGARRIAK	17
3.3.5. ORDEZKARI POLITIKOEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA.....	18
3.3.6. ALKATEAREN INGURUKO IRUDITERIA	19
3.3.7. UDAL GOBERNUAREN INGURUKO BALORAZIO OROKORRA	21
3.4. ERRENTERIAKO UDALAREN ETORKIZUNEN BALIZKO PROIEKTUAK	22
3.4.1. LEHENESTEN DIREN KUDEAKETA-EREMUAK.....	25
3.4.2. EREMU BAKOITZEKO, LEHENESTEN DIREN ETORKIZUNEN BALIOZKO PROIEKTUAK.....	26
3.5. AMAIERAKO OHARRAK	28

1. SARRERA

Jarraian datorrena Errenteriako Udalaren enkarguz egindako ikerketaren emaitza da. Ikerketa hau 2026ko maiatzaren 4a eta 20a bitartean egindako inkesta baten bidez garatu da. Galdetegia Errenteriako Udaleko ordezkariekin adostua izan da.

Aurkezten den txostenak honako egiturari jarraitzen dio:

- Hasteko, ikerketa egiteko erabili den metodologia azaltzen da.
- Ondoren, inkestaren edukietan edota ikerketaren emaitzetan sartzen gara:
 - Inkestatutako herritarren **aldagai soziodemografikoak** aurkezten dira.
 - **Egoera orokorraren inguruan** egiten duten balorazioa jasotzen da: udalerriarekiko dagoen asebetetze maila, udalerriaz gehien baloratzen diren aspektuak zein diren eta Errenterian identifikatzen diren arazo nagusiak zein diren.
 - **Udal gobernuaren inguruko hainbat aldagai** aztertzen dira ondoren: Udal gobernuaren eta oposizioaren inguruko iritzia, gai konkritu batzuen inguruan Udal gobernuaren kudeaketa nolakoa den, Udal gobernuaren hainbat ezaugarriren inguruko balorazioa eta bere balorazio orokorra, eta udal ordezkari batzuen ezagutza eta balorazioa.
 - Amaitzeko, **Errenteriako Udalak mahai gainean dituen zenbait eremuk eta bakoitzeko hainbat proiektuk** herritarren ustez duten **lehentasuna** aztertzen da.

2. METODOLOGIA OHARRAK

ERABILITAKO TEKNIKA: Errenteriako herritarrei egindako inkesta egituratua.

UNIBERTSOA: Errenterian bizi diren 18 urtetik gorako herritarrak. Garai honetan, zehazki, adin horretako **34.046** lagun zeuden erroldatuta.

LAGINA: **601** herritar.

LAGINKETA: Lagina unibertsoaren argazki ahalik eta fidelena izan zedin, adina eta sexuaren arabera kuotak erabili dira.

GALDERA-SORTAK: Aztertu nahi ziren gaien inguruko galderekin osatu dugu galdera-sorta, Udaleko ordezkariekin elkarlanean. Elkarriketa batzuk euskaraz (%23,5) eta beste batzuk gaztelaniaz (%76,5) egin direnez, bi galdera-sorta izan ditugu, hizkuntza bakoitzean bana.

AKATS TARTEA: $\pm 4,0$ lagin osoarentzat, **95,5eko konfiantza mailan** eta $p=q=50,0$ denerako.

DATU TEKNIKOAK (LABURPENA):

Unibertsoa: 18 urtetik gorako Errenteriako herritarrak (**34.046**)

Lagina: **601** herritar.

Landa-lana: 2026ko maiatzaren 4a eta 20a bitartean. Inkestak euskaraz (%23,5) zein gaztelaniaz (%76,5) egin dira, inkestatuaren nahiaren arabera.

Akats tartea: $\pm 4,0$ lagin osoarentzat, **95,5eko konfiantza mailan** eta $p=q=50,0$ denerako.

Guztira, 601 inkesta egin dira adierazitako daten artean. Ondoren, inkesta horiek sexua eta adinaren arabera haztatu dira.

3. EMAITZAK

3.1. ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Aldagai soziodemografikoei dagokionez, zertxobait gehiago dira inkesta erantzun duten emakumeak (%52,1) gizonak baino (%47,8). Adinari erreparatuz, %15ek 18 eta 29 urte bitartean ditu, %18,1ek 30 eta 44 urte bitartean, %38,6k 45 eta 64 urte bitartean, eta %28,3k 65 urtetik gora.

Azterketa honetarako, Erreterria guztia bost zonaldetan banatu da. Egindako banaketaren arabera, Erdigunea-Olibet-Etxe Berriak zonaldean bizi da laginaren zatirik handiena (%28,6) eta, ondoren, Gabierrota-Fanderia-Lartzabal-Alaberga-Agustinak inguruan (%25,7). Beraun-Kaputxinoak-Igantzi eta Galtzaraborda-Iztieta-Altzate zonaldeetan ehuneko antzekoa osatzen dute (%19,2 eta %19, hurrenez hurren). Azkenik, ehunekorik txikiena Pontika-Gaztaño-Zamalbiden dago, inkestatuen %7,5ekin.


Inkestatuen lan egoerari dagokionez, erdia baino gehiago lanean ari da (%57,2), izan jardun osoan, murriztuan edo autonomo bezala. Bestalde, laginaren %6 langabezian dago, %4,2 ikaslea da, eta ia herena bat jubilatua edo pentsioduna da (%30,5). Arlo ekonomikoarekin jarraituz eta inkestatuek dituzten eguneroko gastuak aztertuz, herritarren erdiak baino gehiagok dio (%57,9) hilabete bukaerara oso edo nahiko erraz iristen dela. Inkestatuen heren bat inguru (%32,8), berriz, kostata iristen da hilabete bukaerara, eta gainerako %9,3 batzuetan edo inoiz ez da iristen gastuei aurre egitera. Emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino zaurgarritasun ekonomiko handiagoa dago eta, adinari dagokionez, 30 eta 44 urte bitartean dituztenek adierazi dute hilabete bukaerara iristeko zailtasun handiena.

Herritarren aldagai soziodemografikoekin amaitzeko, hizkuntzari dagokionez, talderik handiena euskaldunena da, %43,1 osatzen baitute. Ondoren, elebidun hartzailleak datoz, %34,2rekin, eta talderik txikiena erdaldunena da, %22,8rekin.

Inkestatuaren generoa


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Emakumezkoa	313	52,1
Gizonezkoa	287	47,8
Ez binarioa	1	0,2
Guztira	601	100,0

Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2026."

**Adin-tartea**


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
18-29 urte artean	90	15,0
30-44 urte artean	109	18,1
45-64 urte artean	232	38,6
65 urtetik gora	170	28,3
Guztira	601	100,0

Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2026."

**Bizi den auzo / zonaldea**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Erdigunea-Olibet-Etxe Berriak	169	28,6
Gabierrota-Fanderia-Lartzabal-Alaberga-Agustinak	152	25,7
Beraun-Kaputxinoak-Igantzi	114	19,2
Galtzaraborda-Iztietia-Altzate	112	19,0
Pontika-Gaztaño-Zamalbide	44	7,5
Guztira	592	100,0


Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2026."



Lan egoera


	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Lan ordainduan (jardun osoan)	263	44,0
Lan ordainduan (jardun murriztuan)	38	6,4
Autonomoa edo bere kontura	31	5,1
Langabezian	36	6,0
Etxeko langilea	10	1,7
Ikaslea	25	4,2
Ikasi + lana	10	1,7
Jubilatu / pentsionista	183	30,5
Beste bat	3	0,5
Guztira	599	100,0

Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2026."

**Egunerokoan dituzun gastuak eta bizimodua nolakoa den ikusita, zure soldata hilabete bukaerara iristea zein neurritan bermatzen dizu?**


	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso erraz iristen naiz hilabete bukaerara	73	12,7
Nahiko erraz iristen naiz hilabete bukaerara	260	45,1
Kostata iristen naiz hilabete bukaerara	189	32,8
Batzuetan ez naiz iristen hilabete bukaerara	38	6,5
Inoiz ez naiz iristen hilabete bukaerara	16	2,8
Guztira	575	100,0

Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2026."

**Euskaraz ulertu eta hitz egiten duzu ondo, hitz egin nekez baina ulertzen duzu edo ez duzu ulertzen?**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Ondo ulertu eta hitz egin	257	43,1
Ukertu bai, hitz egin nekez	204	34,2
Ez ulertu ez hitz egin	136	22,8
Guztira	597	100,0

Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2026."



3.2. ERRENTERRIAREKIKO ASEBETETZEA ETA UDALERRIKO ARAZO NAGUSIAK

Errenteriako herria, bizitzeko leku gisa, zein neurritan gustatzen zaien galdetuta, batez beste 7,5eko puntuazioa ematen diote inkestatuek, 0 eta 10 bitarteko eskalan. Gehienak 8 eta 10 bitarteko puntuazioetan kokatzen dira (%58,7) eta nahiko gutxi dira 5 edo puntuazio baxuagoa ematen diotenak (%12,8). Sexuaren arabera aztertuta, emakumeek orokorrean puntuazio hobea eman diote udalerriri gizonezkoek baino. Bestalde, 30 eta 44 urte bitartean dituzten herritarrak dira kritikoenak, eta zenbat eta adin-tarte zaharragoa izan, orduan eta positiboagoa da balorazioa.

Ondoren, bi galdera egin dira modu irekian, herriaren inguruko balorazio xeheagoa jasotzeko: zein den Errenteriatik gehien baloratzen duten aspektua eta zein den herriaren arazo nagusia.

Gehien baloratzen diren aspektuen artean, sarrien aipatzen dena herriaren komunikazioa da: kokapen ona du herriak, eta ondo komunikatuta edo konektatuta dago inguruarekin (Donostia, Irun, garraio publiko ona...). Ezaugarri hori aipatu du inkestatuen ia heren batek (%31,9). Bigarren lekuan herrian dagoen zerbitzu eta baliabide aukerari egiten zaio erreferentzia (denetik dagoela herrian, dena eskura dagoela) (%11,4) eta hirugarren lekuan giroa duen herri bat dela, bizitza soziala duena (%8,6). Bukatzeko, laugarren lekuan, lasaitasuna aipatzen da (%7,3), eta bosgarrenean aktibitate kultural handia dagoela (%6,3).

Beste aldetik, Errenteriak dituen arazo nagusiez pentsatzen jarrita, hiru gai aipatu dira bereziki: etxebizitza aukera falta (%29), aparkaleku falta (%19,7), eta delinkuentzia, lapurretak eta segurtasun falta (%13). Laugarren postuan udalerraren mantenimentu eta garbitasun falta nabarmendu dira (kaleak, bideak, parkeak... ez daude txukun, zikinkeria) (%5,4), eta, segidan, immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak aipatu dira, komentario arrazistak barne (%4,2).


Emaitzak herritarren profilen arabera aztertuta, ikus daiteke Errenteriaren arazo nagusitzat etxebizitza aukera falta aipatu dutenak herritar gazteak direla, batez ere. Esaterako, 18 eta 29 urte bitartean dituztenen ia erdiak aipatu du arazo hau (%49,1). Aparkaleku falta, berriz, 30 eta 64 urte bitartean dituzten herritarrek aipatu dute gehien, eta Galtzaraborda-Iztieta-Altzate zonaldekoek, batez ere. Bestalde, badirudi emakumezkoak kezkatuago daudela delinkuentzia, lapurreta eta segurtasun faltari dagokionez gizonezkoak baino, eta auzoei dagokienez, Beraun-Kaputxinoak-Igantzi zonaldean aipatu da gehien arazo hau. Azkenik, udalerraren mantenimentu falta nabarmendu dutenak 65 urtetik gorako herritarrak izan dira bereziki, Beraun-Kaputxinoak-Igantzi bizilagunak berriro ere.

3.2.1. ERRENTERIAKO ASEBETETZE MAILA, BIZITZEKO UDALERRI MODUAN

Zenbateraino gustatzen zaizu Errenteria bizileku gisa? 0tik 10erako eskalan

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
8-10 artean	353	58,7
6-7 artean	169	28,2
0-5 artean	77	12,8
ED-EE	2	0,3
Guztira	601	100,0
Batezbestekoa (0-10)	7,5	

Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2026."




3.2.2. GEHIEN BALORATZEN DEN ERRENTERRIAREN ASPEKTUA

Zein da Erreteriaz gehien baloratzen duzun aspektua?

	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Komunikazio ona: konexioa inguruko herriekin, Donostiarekin, Irunekin, garraio publiko ona...	192	31,9
Denetik dagoela herrian, dena eskura dagoela	68	11,4
Giroa du, bizitza soziala	52	8,6
Lasaitasuna	44	7,3
Aktibitate kultural handia	38	6,3
Udal zerbitzu onak, orokorrean	31	5,1
Jendea da gehien baloratzen dudana, erreteriarrek orokorrean	29	4,9
Familia eta gertukoak bertan ditudala	27	4,5
Herri atsegina eta eroso da orokorrean	21	3,6
Nire herria izatea eta errotuta egotea	10	1,7
Bidegorri, pasealeku eta parke asko dituela	6	0,9
Zonalde berdeak, inguru naturala gertu	5	0,9
Komertzio aukera zabala	5	0,8
Herriak duen aniztasuna	4	0,7
Herria garbi eta txukun dagoela, zainduta	3	0,6
Segurtasuna	3	0,4
Beste bat	27	4,5
ED / EE	37	6,1
Guztira	601	100,0

Iturria: Aztiker, "Erreterriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2026."




3.2.3. ERRENTERRIAKO ARAZO NAGUSIA ZEIN DEN

Zein da Erreterriak duen arazorik garrantzitsuen?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Etxebizitza aukera falta	174	29,0
Aparkaleku falta	118	19,7
Delinkuentzia, lapurreta, segurtasun falta	78	13,0
Udalerria ez dago txukun (kaleak, bideak, parkeak...), mantenimendu falta, zikinkeria	33	5,4
Immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak, arrazakeria	25	4,2
Erreterriak ez du arazo handirik	22	3,7
Papeleraren usaia eta soinua	19	3,2
Trafiko handiegia, buelta handiegia eman beharra	13	2,1
Auzoen zaintza falta, auzo batzuk abandonatuta daude	10	1,7
Osasungintza, anbulategiaren egoera, mediku falta	9	1,6
Lana, lan baldintzak, langabezia	8	1,3
Zarata	7	1,2
Prezioen igoera, bizitzaren garestitzea	6	0,9
Zaborrak, hondakinak edukiontzi kanpoan	5	0,8
Arazo eta desberdintasun soziala	4	0,7
Gazteen arazoak	4	0,7
Azpiegiturak eta garraioak	3	0,6
Egoera politikoa, politikariak eta gatazka politikoa	2	0,4
Egoera sozioekonomiko txarra, arazo ekonomikoak	2	0,3
Ingurumena	2	0,3
Beste bat	38	6,3
Ez dakit	19	3,2
Guztira	601	100,0

Iturria: Aztiker, "Erreterriako herritarren iritzia Udalararen eta bere proiektuen inguruan, 2026."



3.3. UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA

Udal gobernuaren kudeaketari dagokionez, herritarren %57,6k Udalaren balorazio positiboa egin du: %14,6k dio Erreenteriako arazoak konpontzen ari dela eta %43k badakiela nola konpondu Erreenteriako arazoak, baina denbora gehiago behar duela. Herritarren %24,9k, aldiz, balorazio negatiboa egiten du Udalarekiko ("ez daki nola konpondu Erreenteriako arazoak"); %5,8aren ustez, bere eskumenetatik kanpo dago herriko arazo nagusiak konpontzea, eta %11,7k ez daki edo ez du erantzunik eman. Orokorrean, emakumeek balorazio positiboagoa egiten dute gizonek baino, eta adinari dagokionez, 65 urtetik gorakoak dira Udal gobernuaren kudeaketaren balorazio positiboena egiten dutenak. Auzoei erreparatuz, berriz, nahiz eta guztietan balorazio positiboak gehiago izan negatiboak baino, Pontika-Gaztaño-Zamalbide zonaldean heren bat baino gehixeago dira Udalak Erreenteriako arazoak nola konpondu ez dakiela diotenak.

Oposizioari dagokionez, %18,2k dio Erreenteriako arazoak konpontzeko proposamenak egiten laguntzen duela; beste %23,1ek, berriz, Udal Gobernuari kritika egin eta oztopoak jartzen dizkiola adierazi du. Bestalde, heren batek "ez bat ez beste" aukeratu du, eta inkestatuen laurdenak ez daki edo ez du erantzunik eman.

Jarraian, Udal gobernu hainbat gaitan nolako kudeaketa egiten ari den galdetu zaie inkestatuei. Lehenik eta behin, aipatzekoa da galdetutako gai guztien inguruan inkestatuen erdiak baino gehiagok egiten duela balorazio positiboa (kudeaketa "nahiko ona" edo "oso ona" dela adierazi dute). Gai bakoitzak jaso duen balorazioaren arabera ordenatuta¹, lehenengo postuan honako adierazpena geratu da: "Udalera joaten zarenean jasotzen duzun arreta presentziala" (%86,8k balorazio ona egiten du), inkestatu profil guztien artean antzeko baloratua izan dena. Bigarren postuan, "Kultur eskaintza" dago (%81ek balorazio ona egiten du), bereziki ona izanik Pontika-Gaztaño-Zamalbide zonaldeko bizilagunek egiten duten balorazioa gai honi dagokionez (%95,2k "nahiko ona" edo "oso ona" dela dio). Hirugarren postuan, berriz, "Udalera telefonoz deitzen duzunean jasotzen duzun arreta" dago (%71,2k positiboki baloratzen du), eta adin-tarte zaharrenen artean dago baloratuen (nahiz eta inkestatuen %20k ez duen azken gai honen inguruko baloraziorik egin).

Gainerako gaiei dagokienez, laugarren postuan geratu den adierazpena "Herriko merkataritzaren eta ostalaritzaren sustapena" izan da; bosgarrenean, "Eragile edo herritar gisa, herriko ekimenetan eta prozesuetan parte hartzeko aukera"; seigarrenean, "Adinekoentzako zerbitzuak" (aipatu behar da %21,9k ez duela baloraziorik egin aspektu honen inguruan); zazpigarrenean, "Zaurgarrienei edo premia gehien dutenei laguntza soziala" (aurreko kasuan bezala, %26,9k ez du aspektu honen inguruko baloraziorik egin); eta, zortzigarrenean, "Jolas eremuen kopurua eta erakargarritasuna".

¹ Likert eskala batean oinarritutako balorazioak izanda, indize baten arabera ordenatu dira gaiak. Indizeak -100/100 bitarteko balio bat har dezake, balorazio guztiz negatiboa izanez gero -100 eta guztiz positiboa izanez gero 100. Honako operazioa egiten da: (oso ona + nahiko ona/2) - (nahiko txarra/2+txarra).

Azkenik, balorazio negatibo gehien jaso dituzten aspektuak, "Zure auzoak Udaletik jasotzen duen arreta" eta "Kirol instalazioen eskaintza" izan dira, inkestatuen heren batek kudeaketa "nahiko txarra" edo "oso txarra" dela adierazi baitu. Auzo bakoitzak Udaletik jasotzen duen arretari dagokionez, Beraun-Kaputxinoak-Igantzi eta Gabierrota-Fanderia-Lartzabal-Alaberga-Agustinak zonaldeetako bizilagunak izan dira balorazio negatiboak egin dituztenak (zonalde bakoitzeko %36 inguruk kudeaketa txarra egiten dela adierazi du). Kirol instalazioen eskaintzari dagokionez, berriz, emakumeak kritikoagoak izan dira gizonak baino, eta adin-tarteei erreparatuz, 30 eta 44 urte bitarteko inkestatuek egiten dute balorazio okerrena.

Beste alde batetik, Udalak Beraunen ireki duen ZU! Zerbitzuaren ezagutza maila neurtu nahi izan da. Zonalde horretan (Beraun, Kaputxinoak, Galtzaraborda, Alaberga eta Igantzi) bizi diren herritarrei soilik galdetu zaie ea zerbitzu hau ezagutzen duten: %78,4k ezagutzen duela erantzun du eta %9,8k honen inguruko zerbait entzun duela. Gainerako %21,8k, ordea, ez du zerbitzua ezagutzen. Aldagai soziodemografikoen arabera, 30 urtetik beherakoek eta 65 urtetik gorakoek gutxiago ezagutzen dute zerbitzua beste adin-tarteetan dauden herritarrek baino.

Jarraian, Udal Gobernuaren balorazioa eskatu da ezaugarri batzuen arabera. Ondoen baloratutako ezaugarria "Komunikazioa, Udalaren inguruko informazioa herritarrei helaraztea" izan da, 6,5eko batezbestekoa lortu duena. Segidan, 6,4ko batezbestekoarekin, "Zintzotasuna", "Lidergoia izateko gaitasuna" eta "Beste erakundeekin elkarlanean aritzeko gaitasuna (Diputazioa, Jaurkitza...)" geratu dira parez pare. Ondoren, "Herritarren arazoekiko hurbiltasuna"-k batez besteko 6,3 puntu ateratu ditu, "Gestiorako gaitasuna"-k 6,1 puntu, eta "Akordioak lortzeko gaitasuna"-k 6 puntu. Aldagai soziodemografikoen arabera, puntuazio baxua (0 eta 5 bitartekoa) emateko joera handiagoa nabaritzen da gizonen artean eta 30 eta 44 urte bitartean dituztenen artean.

Bestalde, Udal ordezkari batzuk aipatu dira, zein neurritan ezagutzen diren eta bakoitzaren inguruan zein balorazio egiten den jakiteko. Gehien ezagutzen den ordezkaria Aizpea Otaegi alkatea da, inkestatuen %77,3k ezagutzen baitu. Bigarren, Isaac Palencia (PSE-EE) dator, %43,7k ezagutzen duena. Hirugarren, Maite Gartzia (Elkarrekin Podemos) dago, %39,9k ezagutzen duena. Laugarren ezagunena Bernar Lemos (EH Bildu) da, %35,2k ezagutzen baitu. Bosgarren lekuan, Eli Murua (PNV-EAJ) dago, %29,4k ezagutzen duena. Eta, azkenik, Antonio Vicente (PP), %9,7k ezagutzen duena. Orokorrean, 65 urtetik gorako herritarren artean Udal ordezkarien ezagutza apalagoa da beste adin-tarteetan baino.

Udal ordezkari hauen lanaren balorazioari dagokionez, ondoen baloratua Aizpea Otaegi alkatea da, 7 puntuko batezbestekoa jaso baitu (0 eta 10 bitarteko eskala batean). Bigarren lekuan, Bernar Lemos agertzen da 6,7ko mediarekin eta hirugarren Maite Gartzia dago, 5,8ko batezbestekoarekin. Eli Muruari 5,4ko puntuazioa ematen zaio batez beste, eta Isaac Palenciari 4,8koa. Azkenik, baloraziorik baxuena Antonio Vicentek jaso du, 3,4ko mediarekin.

Galdera ireki baten bidez, alkatearekin lotzen dituzten ezaugarri nagusiak aipatzeko eskatu zaie herritarrei. Aizpea Otaegi alkatea ezagutzen dutenei bakarrik egin zaie galdera eta honako enuntziatua erabili da: "Aizpea Otaegi alkateaz hitz egiten dugunean, bere zein ezaugarri aipatuko zenuke bereziki? Positiboa edo negatiboa izan daiteke".

- Herritarrek aipatu dituzten ezaugarri gehienek zentzu positiboa dute. Esaterako, gehien aipatu diren ezaugarriak "Gertukoa, herrikoa, irisgarria" izan dira, inkestatuen bi heren baino gehiagok antzeko adjektiboak erabili baititu alkatea deskribatzeko (%37,6).
- Bigarren postuan, "Herriarekin eta herritarrekin inplikatur / konprometitur, herriko arazoekiko interesa erakusten du" gisako aipamenak daude (%8).
- Hirugarren, "Elkarriketarako irekia dago (*dialogante*), entzuten daki, herritarren iritzia kontuan hartzen du" bezalako ezaugarriak aipatu dira (%6,6).
- Laugarren, "Jatorra, atsegina, tratatu onekoa, enpatia erakusten du" aipatu dute (%5,9); eta, bosgarren, "Langilea, esfortzua egiten du, herriarentzat gauzak egiten saiatzen da" (%4,8).

Bestalde, inkestatuek aipatutako ezaugarri negatiboen artean daude "Ez da nahikoa inplikatzen gai batzuetan, pasibotasuna arazo jakinen aurrean, bere lana hobeto egin behar luke" aipamenen %3,9rekin edota "Herritarrengandik urrun dago, herritarrei gehiago entzun beharko lieke, gertutasun falta" aipamenen %1,7rekin.


Atal honekin bukatzeko, Udal Gobernuak legegintzaldi honetan (2023tik hona) egindakoa baloratzeko eskatu zaie herritarrei, 0tik 10erako eskala erabiliz. Batez beste, 6,3ko puntuazioa eman diote herritarrek, eta media hori antzekoa den arren profil ezberdinetako herritarren artean, ñabardurak antzematen dira. Esaterako, emakumeen artean puntuazio altua (8 eta 10 bitartekoa) emateko joera handiagoa antzematen da gizonen artean baino. Bestalde, 30 eta 44 urte bitarteko herritarrek dira batez besteko puntuazio txarrenea eman dutenak (5,9 puntu, batez beste).

3.3.1. UDAL GOBERNUAREN ETA OPOSIZIOAREN INGURUKO IRITZIAK

Ondoko esaldietatik zeinek azaltzen du hobeto Udalari buruz duzun iritzia?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Erretereriako arazoak konpontzen ari da	88	14,6
Badaki nola konpondu Erretereriako arazoak, baina denbora gehiago behar du	258	43,0
Ez daki nola konpondu Erretereriako arazoak	150	24,9
Herriko arazo nagusiak konpontzea udalaren eskumenetatik kanpo dago	35	5,8
ED / EE	70	11,7
Guztira	601	100,0


Iturria: Aztiker, "Erretereriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2026."



Eta ondoko esaldietatik zeinek azaltzen du hobeto oposizioari buruz duzun iritzia?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Erretereriako arazoak konpontzeko proposamenak egiten laguntzen du	109	18,2
Udal Gobernuari kritika eta oztopoak jartzen dizkio	139	23,1
Ez bat ez beste	201	33,4
ED / EE	152	25,3
Guztira	601	100,0

Iturria: Aztiker, "Erretereriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2026."




3.3.2. UDAL GOBERNUA HAINBAT GAIETAN NOLAKO KUDEAKETA EGITEN ARI DEN

Udal kudeaketaren balorazioa hainbat aspekturen arabera

	Oso ona	Nahiko ona	Nahiko txarra	Oso txarra	ED / EE	Guztira (% eta n)		Indizea
Udalera joaten zarenean jasotzen duzun arreta presentziala	31,5	55,3	4,0	3,1	6,1	100,0	308	54,1
Kultur eskaintza	23,6	57,4	8,0	2,6	8,4	100,0	308	45,7
Udalera telefonoz deitzen duzunean jasotzen duzun arreta	19,0	52,2	7,2	1,6	20,0	100,0	293	39,9
Herriko merkataritzaren eta ostalaritzaren sustapena	14,6	58,8	13,4	3,4	9,9	100,0	293	33,8
Eragile edo herritar gisa, herriko ekimenetan eta prozesuetan parte hartzeko aukera	12,5	54,7	10,0	5,2	17,6	100,0	293	29,6
Adinekoentzako zerbitzuak	11,9	49,1	13,4	3,7	21,9	100,0	308	26,1
Zaurgarrienei edo premia gehien dutenei laguntza soziala	13,7	43,2	13,0	3,3	26,9	100,0	293	25,5
Jolas eremuen kopurua eta erakargarritasuna	11,7	52,3	19,6	6,3	10,1	100,0	293	21,7
Kirol instalazioen eskaintza	9,6	49,1	24,4	8,0	8,9	100,0	308	13,9
Zure auzoak udaletik jasotzen duen arreta	6,8	56,6	23,5	9,5	3,6	100,0	308	13,9

Iturria: Aztiker, "Erreenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2026."




3.3.3. UDALAK BERAUNEN IREKI DUEN ZU! ZERBITZUAREN EZAGUTZA MAILA

Ezagutzen al duzu Erreneriako Udala goiko auzoetara gerturatzeko Beraunen ireki berri den ZU! Zerbitzua? Informazioa emateko, tramiteak egiteko...

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai, ezagutzen dut	137	68,4
Bai, zerbait entzun dut	20	9,8
Ez, ez dut ezagutzen	44	21,8
Guztira	201	100,0

Iturria: Aztiker, "Erreneriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2026."




3.3.4. UDAL GOBERNUAREN EZAUGARRIAK

Udal gobernuaren ezaugarriak

	Komunikazioa, Udalaren inguruko informazioa herritarrei helaraztea		Zintzotasuna		Lidergoa izateko gaitasuna		Beste erakundeekin elkarlanean aritzeko gaitasuna (Diputazioa, Jaurlaritza...)		Herritarren arazoekiko hurbiltasuna		Gestiorako gaitasuna		Akordioak lortzeko gaitasuna	
	Maiztasuna	(%)	Maiztasuna	(%)	Maiztasuna	(%)	Maiztasuna	(%)	Maiztasuna	(%)	Maiztasuna	(%)	Maiztasuna	(%)
8-10 artean	221	36,8	192	32,1	180	30,0	155	25,8	173	28,9	152	25,3	128	21,3
6-7 artean	180	30,1	180	30,0	173	28,9	148	24,6	223	37,2	224	37,3	175	29,2
0-5 artean	156	26,1	154	25,7	132	22,1	113	18,9	169	28,2	170	28,4	160	26,7
ED-EE	42	7,1	73	12,2	114	19,0	183	30,6	34	5,7	54	8,9	137	22,8
Guztira	599	100,0	599	100,0	599	100,0	599	100,0	599	100,0	599	100,0	599	100,0
Batezbestekoa	6,5		6,4		6,4		6,4		6,3		6,1		6,0	

Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2026."




3.3.5. ORDEZKARI POLITIKOEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA

Udal ordezkarien ezagutza

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Aizpea Otaegi, alkatea (EH Bildu)	465	77,3
Isaac Palencia (PSE-EE)	263	43,7
Maite Gartzia (Elkarrekin Podemos)	240	39,9
Bernar Lemos (EH Bildu)	211	35,2
Eli Murua (PNV-EAJ)	177	29,4
Antonio Vicente (PP)	58	9,7


Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2026."



Errenteriako Udaleko ordezkari politikoen lanaren balorazioa (0-10)

	Aizpea Otaegi, alkatea (EH Bildu)		Bernar Lemos (EH Bildu)		Maite Gartzia (Elkarrekin Podemos)		Eli Murua (PNV-EAJ)		Isaac Palencia (PSE-EE)		Antonio Vicente (PP)	
	Maiztasuna	%	Maiztasuna	%	Maiztasuna	%	Maiztasuna	%	Maiztasuna	%	Maiztasuna	%
8-10 artean	193	41,5	67	31,5	50	20,9	21	12,0	35	13,4	3	4,5
6-7 artean	162	34,8	69	32,8	72	29,8	50	28,4	54	20,7	5	8,0
0-5 artean	88	18,9	40	18,7	78	32,7	59	33,1	124	47,1	36	61,2
ED-EE	22	4,8	36	16,9	40	16,6	47	26,5	50	18,9	15	26,3
Guztira	465	100,0	211	100,0	240	100,0	177	100,0	263	100,0	58	100,0
Batezbestekoa	7,0		6,7		5,8		5,4		4,8		3,4	

Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2026."




3.3.6. ALKATEAREN INGURUKO IRUDITERIA


Aizpea Otaegi alkateaz hitz egiten dugunean, bere zein ezaugarri aipatuko zenuke bereziki? Positiboa edo negatiboa izan daiteke

	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Gertukoa, herrikoa, irisgarria	139	37,6
Herriarekin eta herritarrekin inplikatur / konprometitua, herriko arazoekiko interesa erakusten du	29	8,0
Elkarrizketarako irekia dago (dialogante), entzuten daki, herritarren iritzia kontuan hartzen du	24	6,6
Jatorra, atsegina, tratu onekoa, enpatia erakusten du	22	5,9
Langilea, esfortzua egiten du, herriarentzat gauzak egiten saiatzen da	18	4,8
Bestelako iritzi / ezaugarri positiboak	16	4,2
Bere lana ondo egiten du, gauzak aurrera ateratzeko gai da, ondo prestatua dago	15	4,2
Ez da nahikoa inplikatzeko gai batzuetan, pasibotasuna arazo jakinen aurrean, bere lana hobeto egin behar luke	15	3,9
Komunikatzaile ona da, asertibitatea	7	2,0
Herritarrengandik urrun dago, herritarrei gehiago entzun beharko lieke, gertutasun falta	6	1,7
Bestelako iritzi / ezaugarri negatiboak	6	1,7
Gauza batzuk ondo egiten ditu, baina beste batzuetan hobetu behar du	6	1,6
Auzoak kontuan hartzen ditu	6	1,5
Ondo geratu nahi du, interesatzen zaionean soilik ematen du aurpegia	5	1,2
Euskalduna da, euskaraz ondo hitz egiten du	4	1,2
Ez ditu auzo guztiak kontuan hartzen, auzo batzuk abandonatuta daude	4	1,1
Pertsona apala da, humila, diskretua	4	1,0
Lasaia	3	0,8
Kontziliatzailea da, ez da gatazkatsua	3	0,7
Denbora falta zaio gauzak egiteko	2	0,6
Koherentea	2	0,6
Ez ditu esandakoak betetzen	2	0,5
Bestelakoak	32	8,6
Guztira	369	100,0

Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udaren eta bere proiektuen inguruan, 2026."



AIZPEA OTAEGIREN INGURUAN JASO DIREN IRUDITERIKO ELEMENTUEN HITZ-HODEIA.




3.3.7. UDAL GOBERNUAREN INGURUKO BALORAZIO OROKORRA

Nola baloratzen duzu, oro har, Udalak legegintzaldi honetan egindakoa (2023tik), 0tik 10erako eskala erabiliz

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
8-10 artean	187	31,2
6-7 artean	221	36,8
0-5 artean	165	27,6
ED-EE	27	4,4
Guztira	599	100,0
Batezbestekoa (0-10)	6,3	

Iturria: Aztiker, "Errenteriako herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan, 2026."



3.4. ERRENTERIAKO UDALAREN ETORKIZUNeko BALIZKO PROIEKTUAK

Inkesta amaitzeko, Errenteriako Udalaren etorkizuneko balizko proiektuen inguruan galdetu zaie herritarrei.

Lehenik eta behin, bost gai-eremu planteatu zaizkie inkestatuei. Hauen artean, bakoitzaren ustez hurrengo urteetara begira Udalak lehentasuna eman beharko liekeen bi aukeratzeko eskatu zaie.

Gehien aukeratu den eremua "Herritar gazte eta adinekoen beharrak asetzea" izan da. Inkestatuen %63k aukeratu du lehen edo bigarren aukera moduan, hau da, 599 pertsonatik 377k. Bigarren postuan "Herriko azpiegiturak eta instalazioak hobetzea" geratu da, lehenengoarekiko oso alde txikiarekin, %62,6k aukeratu baitu. Gainerako eremuak hurrenkera honetan geratu dira: "Tokiko ekonomia indartzea" (%35,2), "Ingurumena zaintzea eta irisgarritasuna hobetzea" (%22,4) eta "Kohesio soziala eta gizarte politikak sustatzea" (%16,8).

Aldagai soziodemografikoen arabera, emakumeen artean gehiago aukeratu da "Herritar gazte eta adinekoen beharrak asetzea" gizonen artean baino, eta, adin-tarteei erreparaturik, 65 urtetik gorakoek aukeratu dute bereziki. "Herriko azpiegiturak eta instalazioak hobetzea", berriz, 30-44 urte bitartekoek aukeratu dute beste taldeek baino gehiago. Bestalde, "Tokiko ekonomia indartzea"-ri dagokionez, gizonetakoek gai honekiko interes gehiago erakutsi dute emakumeek baino; "Ingurumena zaintzea eta irisgarritasuna hobetzea" 65 urtetik gorakoek aukeratu dute batez ere; eta, azkenik, "Kohesio soziala eta gizarte politikak sustatzea"-ri dagokionez, ez da profilik nabarmentzen.

Gai-eremu orokorrean harago, Udalak hurrengo urteetan aurrera eraman ditzakeen proiektu batzuen arteko lehentasunak ere aztertu nahi izan dira. Guztira, 25 proiekturen balorazioa jaso da. Horretarako, pertsona bakoitzari hamar proiektu aurkeztu zaizkio, horien artean bere ustez lehentasunezkoak izan beharko luketen hiru aukeratzeko eskatuz. Hamar proiektu horiek aurrez aukeratu dituen bi lehentasunezko gai-eremuen arabera izan dira; honela, bost gai-eremuen arabera antolatu dira lehenesteko ariketan landu nahi ziren hogeita bost proiektuak. Planteamendu honen ondorioz, proiektu bakoitza baloratzera iritsi diren pertsonen oinarria desberdina izan da, eremu bakoitza aukeratu duten pertsonen baloratu baitituzte bere baitako proiektuak (adibidez, "Herritar gazte eta adinekoen beharrak asetzearen" baitako proiektuak hautatzeko aukera 377 pertsonen izan dute eta "Kohesio soziala eta gizarte politikak sustatzea" eremuaren baitakoak 101ek).

Honako organigrama izan dute gai-eremuek eta beren baitako proiektuek:



Hiru proiektu aukeratuenak herritar gazte eta adinekoen beharrak asetzearekin eta herriko azpiegiturak eta instalazioak hobetzearekin lotuta daude. Honakoak izan dira: lehenengoa, "Gazteen etxebizitza-aukerak hobetzea", lagin osoaren %35,9k aukeratu duena eta proiektu hori aukeratzeko modua eduki duten pertsona guztien %57k. Bereziki aukeratua izan da emakumezkoen artean eta herritar gazteen artean. Bigarrena, "Etxebizitza gehiago eraiki daitezten sustatzea", lagin osoaren %33,3k aukeratua eta proiektu horretara iritsi direnen %53,2k. Eta, hirugarrena, "Aparkaleku disuasorio gehiago eraikitzea", inkestatuen %32,3k aukeratua eta proiektura iritsi direnetatik %51,5ek. Hirugarren hau bereziki aukeratua izan da gizonezkoen artean eta 30-44 urte artekoetan. Edonola ere, hiru proiektu hauek zuzenean lotuta daude Errearteriako arazo nagusi gisa aipatu diren etxebizitza aukera faltari eta aparkaleku faltari aurre egitearekin.

